

**2018ko EKAINAREN 28an UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA** **6 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2018ko ekainaren 28an, iluntzeko zazpitan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

<b>Batzarburua</b>	Xabier Txurruka Fernandez jn.
<b>Bertaratutako zinegotziak</b>	Maite Garrastazu and. Jesus Arana Gomez jn. Nekane Iribar Iriondo and. Ixidor Larrañaga Ayerbe jn. Iban San Martin Hernandez jn. Miren Letamendia Belloso and. Jon Andoni Urdangarin Urrutia jn. Iratxe Zorrozuza Eguiazabal and. Koldo Uribarri Zenekorta jn. Mikel Goenaga Gubia jn. Iñaki Eizagirre Eizagirre jn. Karmele Alberdi Linazasoro and. Aitor Korta Etxabe jn. Xabier Vazquez Izquierdo jn. Ane Arruti Lopetegi and. Gloria Vazquez Herranz and. Patxi Elola Azpeitia jn. Ana De Benito Sanz and. Oihane Delgado Pita and.
<b>Ez dira etorri</b>	Naiara Carvajal Larrañaga and. Lioba Maiza Rekondo kontu-hartzaile and.
<b>Idazkaria</b>	Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.

Bilkurari hasiera emanda, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatu ditu Udalbatzarrak.

## GAI-ZERRENDA

### **1.- 2018ko MAIATZAREN 31ko BILKURAREN AKTA ONARTZEA.**

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

### **2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN KONTROLA:**

– 2018ko maiatzaren 28tik ekainaren 19ra.

Segidan, Alkatetzak 2018ko maiatzaren 28tik ekainaren 19ra erabakitako dekretuen berri izan du Udalbatzak.

### **3.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN ERABAKIEN KONTROLA:**

– 2018ko maiatzaren 28tik ekainaren 18ra.

Era berean, Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko maiatzaren 28tik ekainaren 18ra hartutako erabakien berri izan du Udalbatzak.

### **4.- OSTALARITZAKO ORDENANTZA BERRIA IDAZTEKO LANAK HASTEA, ETA EGUNEKO ORDUTEGIA DUTEN TABERNAK IREKITZEKO LIZENTZIAK EMATEARI UZTEA ALDI BATEAN.**

2018H1330001 espedientea

2017ko abenduaren 28an egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak aho batez onartu zuen 2018. URTERAKO ZARAUZKO UDALAREN ARAUGINTZA PLANA. Ostalaritzako establezimenduak arautzeko udal ordenantza berrikustea aurreikusi da, besteak beste, plan horren barruan.

Alkatetzak Hirigintza eta Ingurumen Departamentuari eskatu dio proposamen bat idatz dezala ordenantza hori berrikusteko, Udalbatza honen agintaldiaren barruan onartu ahal izan dadin.

Eta, era berean, proposatu du udalerrri osoan, aldi batean, baimen eta lizentzia berririk ez ematea edari alkoholduak saltzeko baimena duten eguneko ordutegiko establezimenduak egokitze (08:00-22:00), harik eta ordenantza berria idazten eta izapidetzen den bitartean.

Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuak egin zuen lizentziak emateko etenaldiaren proposamenari buruzko txostena. Aldi berean, Lurraldeko informazio-batzordean eztabaidatu zen.

Espedientea aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

**Lehenengoa.-** Udalerri osoan, aldi batean, baimen eta lizentzia berririk ez ematea edari alkoholdunak saltzeko baimena duten eguneko ordutegiko establezimenduak egokitzeke (08:00-22:00).

Etenaldi horrek bere horretan jarraituko du ordenantza berria indarrean sartu arte, baina, gehienez ere, urtebeteko epean.

**Bigarrena.-** Etenaldiaren erabakia eraginkorra izateko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta lurralde historikoan hedadura gehien duen egunkarietako batean argitaratu beharko da.

## 5.- PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZAREN ERANSKINA ALDATZEA

2018C2100001 espedientea

Akordio-zirriborroa irakurri ostean, proposamena eztabaidatu eta bozkatu dute. Bozketak emaitza hau izan du:

Botoak alde:	12	(10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Botoak aurka:	—	
Abstentzioak:	8	(6 EH Bildu, 2 Irabazi Zarautz)

Beraz, adierazitako gehiengoarekin, Udalbatzarrak erabaki hau hartu du:

“Segidan, prezio publikoak arautzen dituen ordenantzaren eranskina aldatzeko proposamena aztertu eta eztabaidatu dute.

Horrenbestez, Antolakuntza informazio-batzordeak irizpena eman ondoren Udalbatzarrak, botoen gehiengoarekin,

ERABAKI DU

**Lehena.-** Onespena ematea Udal aginpideko zerbitzuak edo administrazio jarduerak betetzeagatiko prezio publikoak arautzen duen Ordenantzaren eranskinaren aldaketari.

**Bigarrena.-** Ezarritako prezio publikoak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 45.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, eragina izan dezaten.”

**8. ORDENANTZA:  
ZERBITZUAK ETA JARDUERAK EGITEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO  
PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUENA**

**ERANSKINA**

**f) KULTURA ETA ARTE ETA HISTORIA MUSEOA**

**Modelo aretoaren erabilera**

<b>Tarifa</b>	<b>euro</b>
Eguneko tarifa	150,00

Modelo aretoa erabiltzeagatik prezio publikoa ordaintzetik salbuetsita egongo dira honako hauek: irabazi-asmorik gabeko elkarte eta erakundeak (Eusko Jaurlaritzako edo Zarauzko Udaleko erregistroan inskribatuta daudenak) eta irabazi-asmorik gabeko jarduerak egiten dituzten pertsona fisikoen taldeak (38/2003 Legeko 11. artikulua).

**Modelo aretoko zerbitzuak**

<b>Tarifa</b>	<b>euro</b>
Aretozaina eta oinarrizko lanak*, 4 ordu edo frakzioa	120,00
Aretozaina eta oinarrizko lanak, ordu gehigarria	30,00
Sarrerren salmenta, 2 ordu edo frakzioa	50,00
Sarrerren salmenta, ordu gehigarria	25,00
Atezaina, 2 ordu edo frakzioa	50,00
Atezaina, ordu gehigarria	25,00

\* Oinarrizko lanak:

- Instalakuntza ireki/itxi
- Berogailua piztu/itzaldu
- Oinarrizko soinua eta argia erabiltzea
- Udalaren proiektagailu digitalarekin proiektzioa + soinua

**g) UDAL KIROLDEGIA**

<b>Ikastaroak, hileko prezioak</b>	<b>Abonatuak</b>	<b>Ez abonatuak</b>
Gimnasioetan, saio 1 astean	14,50	26,80
Gimnasioetan, 2 saio astean	29,00	53,60
Gimnasioetan, 3 saio astean	39,00	63,75
Igerilekuetan, saio 1 astean	17,00	30,50
Igerilekuetan, 2 saio astean	34,60	56,60
Igerilekuetan, 3 saio astean	50,25	72,20

<b>Programak</b>	<b>Abonatuak</b>	<b>Ez abonatuak</b>
Soinketa +60	0,00	0,00
Tipi tapa +65	0,00	0,00
Egokitua	0,00	0,00
Igeriketa sustapen kanpaina	0,00	0,00
Eskola kiroleko programa inklusiboa	0,00	0,00
Eskola kiroleko programa E1	0,00	0,00

Igeriketa eskola hiruhilekoa	92,40	158,25
Oporrak pakean	0,00	0,00

q) SURF ETA BODY BOARD ESKOLA:

Zarauzko hondartzako txandakako baimenak

Kategoriak	Hondartzako arloak: prezioak parte-hartzaile bakoitzeko eta orduko				
	Munoa	Eguzki Lore	Dama	Eremua Desertu txikia	Borghetto Kanala
1	0,50 €	0,50 €	0,50 €	0,50 €	0,50 €
2	-	-	-	-	1,00 €
3	-	-	-	-	4,00 €

Surf eskolen kategoriak:

- 1. kategoria: surfarekin zerikusia duen "surf eskola" edo "txikizkako merkataritza" jarduerako Zarauzko Udalak emandako irekitze-lizentzia edo egiaztatze formala duten enpresak.
- 2. kategoria: bere jarduera herrian egiten duten ekintzaileak.
- 3. kategoria: bere jarduera Zarautzen kokatuta ez badute ere, bertako ostalariekin batera, aukera turistikoko integralak eskaintzen dituzten enpresak.

r) UDAL MUSIKA ESKOLA

2018-2019 ikasturtea

Ikasgaia	Matrikula	Ikastaroaren prezioa
Musika hizkuntza (haurrak)	35,00	195,00
Musika hizkuntza (helduak)	35,00	300,00
Instrumentua	35,00	390,00
Musika tailerra	35,00	300,00
Instrumentu multzoak	35,00	210,00
Musikoterapia	35,00	350,00
Kantuko adarra (haurrak eta gazteak)	35,00	150,00

**6.- KULTUR MEREZIMENDUAREN DOMINA: RAMON SERRAS**

2018KKKK0003 espedientea

Horretarako izapidetu den espedientea ikusi ondoren, Udaltzatarrak, aho batez,

ERABAKI DU

2018. urtean ohore eta aipamen hau ematea:

**KULTUR MEREZIMENDUAREN DOMINA  
RAMON IGNACIO SERRAS AIZPURUAri**

kultur arloan egindako aparteko zerbitzuengatik, Zarauzko Udaleko Ohore eta Aipamenen Araudian aurreikusitako ondorioekin.

## RAMON IGNACIO SERRAS AIZPURUA

### Ofizioz pasteleroa, afizioz argazkilaria eta izatez zarauztarra

Ramon Ignacio Serras Aizpurua 1943ko uztailaren 31n jaio zen, Zarautzen, pastelgileen familia batean. Ez dago dudarik Loiolako San Inazio egunean jaiotzeak bere arrastoa uzten duela. Gaur egun, oraindik ere, bere hurbileko askok Ramon Ignacio deitzen diote.

Zarautzen, "Serras" eta pastelgintza sinonimoak dira. Ezinezkoa izango litzateke establezimendu horrekin lotutako oroitzapenik ez duen norbait aurkitzea. Hanka sartzeko beldurrik gabe esan dezakegu zarauztar askorentzat Gabonetako jaiak pastel-dendako erakusleihoan jartzen zuten mazapanezko krokodiloarekin hasten zirela eta, urtarrilaren 6an, Serraseko errege-opilarekin bukatzen. Familiako negozio horren hirugarren belaunaldia da Ramon.

Ramon, jende askorentzat, Kale Nagusiko eta Torre Luzearen ondoko pasteleroa bada ere, beste batzuentzat Zarauzko argazkilaria da, beti bere argazki-kamerak soinean daramatzen bizarduna.

Ramon argazkilaria lehena hazia, neurri batean, bere familian dago. Bere etxean bertan izan zuen argazkilaritzarekin lehena harremana, aita argazki-kamera bat baitzeukan. Testuinguru horretan jaio zen orokorrean argazkilaritzarekiko maitasuna, bai bere alderdi artistiko edo sortzailean, bai argazki dokumental edo historikoetan; hori bai, teknika ahaztu gabe.

70eko hamarkadan era autodidaktan hasi zen Ramon argazkilaritzan trebatzen eta bi bidetatik garatzen. Alde batetik, bere karrera artistikoaren sorreran bere ezagutzak aplikatzen, eta, bestetik, bere alde solidarioena erakusten, beti prest egon baita bere esperientziak komunikatzeko, aholkuak emateko eta besteekin partekatzeke.

Bere lehena lanek berehalako aitortza lortu zuten estatuan zein atzerrian. Bere obrak areto askotan erakutsi izan dira, bai Zarauzko udal aretoetan (Torre Luzea edo Sanz Enea), bai izen handiko beste museo eta erakundeetan; esate baterako, Donostiako San Telmo Museoan, Bilboko Arte Ederren Museoan, Lugoko Museoan, Tarazonako Argazkilaritza Jaialdian, Kutxaren Donostiako erakusketa-gelan, Iruñeako Contraluz galerian, eta beste leku askotan. Ibilbide horri esker Ramon erreferente bat da Euskal Herriko argazkilaritzaren munduan.

Erakusketetan ez ezik, beste euskarri edo formatu askotan ere ikusi ahal izan ditugu Ramonen argazkilaritza-lanak; adibidez, diskoen azaletan, telebistako goiburuetan, aldizkarietan, foiletuetan eta, batez ere, erakusketen katalogoetan. Batzuk aipatzearen, *Zabalbideak*, Bernardo Atxagaren hitzekin; *Lanak eta Egunak*, Anjel Lertxundirekin; *Zarauzko Argazkiak: Polaroid 1988-1998*, Pello Esnaolen poesiekin.

Ramonen bizitzaren beste atal aipagarri bat Zarauzko kultur eta gizarte bizitzaren dinamizatzailearena da. Sortu zenetik aktiboki parte hartu zuen Zarauzko Guraso Elkartearen, 1980an *Zarauzko Argazkizale Elkarte*a / *Sociedad Fotográfica de Zarautz* osatu zuen, eta bera izendatu zuten elkartearen lehena lehendakari. Horrela bultzatu zuen argazkilaritzaren prestakuntza gure herritarren artean. "*Zarauzko Argazkiak 1866-*

1936" liburua argitaratu zuen, Kutzaren laguntzarekin. Argitalpen hori funtsezkoa eta oinarritzkoa da Zarauzko herriaren historia fotografikoa ezagutzeko.

Bestalde, bere argazkilaritza-lan asko eta asko Zarautzen oinarritzen dira. Irudietan jaso ditu gure inguruko pertsona ospetsuak, eta era artistikoan bildu ditu hondartzako milaka irudi, malekoikoak, herriko kirol edo kultur ekitaldietakoak. Nork ez du jo Ramonengana foileto, katalogo edo egutegi bat egiteko irudi eske?

Sortzaile eta zabaltzaile izateaz gain argazkilaritzaren maitale ere badenez, bildumagile fotografiko bihurtu zen, eta argazkiak, kamerak eta beste tresna batzuk pilatzeari ekin zion. Zarauzko eta inguruetakoko irudi zaharrak erosten hasi zen, eta, azkenean, argazkilaritzaren museo bat sortu zuen bere herrian: Photomuseuma.

Hain zuzen ere, 1993an, Leopoldo Zugaza kultur sustatzailearekin batera eta Zarauzko Udalaren laguntzarekin, bere atea ireki zituen Photomuseumak, argazkilaritzan espezializatutako Estatuko lehen museoak. Azken finean, partikularretik hasi eta unibertsalera doan bidaia bat da, eta gizarte osoaren zerbitzura dago.

Eta bukatzeko, azpimarratu beharra dago ibilbide horren zati handi bat ez zela posible izango bere emazte Celina Gorostizagoizaren laguntza, indar eta ulermenik gabe.

Pasteleroa, argazkilaria eta, batez ere, zarauztarra.

Mila esker, Ramon Ignacio!

## **7.- ADIERAZPEN INSTITUZIONALA**

### **– EUSKARALDIA Udal barruan sustatzeko**

2018EEEE0003 espedientea

Segidan, udal taldeek adostutako adierazpen instituzional hau irakurri du **alkate** jaunak:

### **EUSKARALDIA UDAL BARRUAN SUSTATZEKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA**

Azken neurketek baieztatu dutenez, euskararen ulermena eta ezagutza zabaltzen ari dira Euskal Herriko inguru ezberdinetan. Euskaraz hitz egiteko gai den jende gehiago dago, eta euskara ulertzen dutenak ere gero eta gehiago dira. Bi datu horiek aditzera ematen digutenez, euskarazko harremanak areagotzeko baldintza onak daude.

Horrela bada, euskararen erabilpen maila handiagoa sustatu eta praktika linguistiko berriak bultzatzen dituzten testuinguruak sortzeko beharra dagoela ikusten da.

Eta horixe da Euskaraldia, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Topaguneak beste hainbat eta hainbat eragilerekin

elkarlanean, erabilera eta praktika linguistiko berriak sortzeko abian jarri dugun ekimena. Ezagutzatik erabilerarako jauzia emateko garaia da, euskararen alde egotetik alde egiteko garaia.

Euskaraldia Euskal Herri osoan egingo den arren tokian tokiko euskaltzale eta erakundeak izango dira herri bakoitzeko dinamiken sustatzaileak. Zarautzen ere, osatu da ekimen hori garatzeko batzordea.

Ekimen horretan 11 egunetan hizkuntza-praktika berri bat gauzatzera gonbidatuko ditugu herritarrak. Ariketa horren subjektuak 16 urtetik gorako helduak izango gara eta 11 egunez helduen hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa kolektibo bat egitea da proposamena, ulermena balioan jarrita. Bi subjektu mota bereizi dira: *ahobiziak* eta *belarriprestak*.

*Ahobiziak* izango dira 11 egun horietan euskarari eutsiko diotenak solaskideak euskaraz ulertzen duen guztietan, eta, *belarriprestak*, berriz, solaskideak gonbidatuko dituzte berarekin euskaraz aritzera, nahiz eta *Belarriprestak* euskaraz edo gaztelaniaz erantzun.

Ekimenaren helburua da, besteak beste, ariketa praktiko horren bidez ikusaraztea eta bizi-araztea hizkuntza-ohiturak alda ditzakegula, eta, ahal dela, 11 egun horiek pasa ostean, hizkuntza-praktika berri horiei eustea.

Hori guztia norberaren erabakiak errespetatuz, adetasunez eta guztiak eroso sentitzeko moduan.

### **Euskaraldia Gipuzkoako Foru Aldundian eta Udaletxeetan**

Zarautzen eta Gipuzkoan erabileran eragiteko baldintza soziolinguistiko egokiak ditugu. Eta horrek ardura eta erantzukizun berezia ematen digu Euskaraldian.

Zarautzen bizi den 2 urte edo gehiagoko biztanleriaren % 74,14 euskalduna da eta beste % 10,96ak euskara ulertzen du. Gipuzkoan biztanleriaren % 57,4 euskalduna da eta beste % 15,9k euskara ulertzen du.

Administrazioari dagokionez, Zarauzko ordezkari politikoen %100 gai da euskaraz hitz egiteko eta udal langile publiko guztiak ere bai.

Gipuzkoako ordezkari politikoen % 86,8 gai da euskaraz hitz egiteko eta beste % 3,6 ulertzeko, eta langile publikoen % 86,8k hitz egiten du euskaraz.

Baina erabilera-datuak diote Zarautzen kale erabilera %50,5ekoa dela eta Gipuzkoan 16 urtetik gorakoen % 39,5ek hitz egiten duela euskaraz. Badugu non hobetu, eta horretan lagunduko digu Euskaraldiak.

Aipatutako datuak eta Gipuzkoako eta Zarauzko egoera soziolinguistikoa aintzat hartuta, Euskaraldia, aukera egokia dugu erakunde publikoek, eta, beraz, arduradun politikoei dagokigun erantzukizuna geure gain hartzeko eta eredugarritasunez jokatzeko, erabileran urrats berriak egite aldera.

Horregatik guztiagatik, honako hau aurkezten dugu:



## ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Zarauzko Udalak honakoa adierazi nahi du:

- Zarauzko Udaltzaren **bat egiten du Euskaraldiarekin** eta ekimenaren sustatzaile izango da. Horrenbestez, **erantzukizunez** eta **eredugarritasunez** jokatzeko konpromisoa hartzen du.
- Ordezkaritza politikoa **egiteko nagusia** izango da Euskaraldiaren markoan eta **bereziki udal barrura begira ekimena zabaltzea**. Horrenbestez, ekimen honetan ahalik eta *ahobizi* eta *belarriprest* gehien aktibatzekeko urratsak emango ditugu, arduradun politikoak izan nahiz langileak izan.
- **Ahobiziok** euskara ulertzen duten guztiekin euskaraz aritzeko konpromisoa hartzen dugu.
- **Belarriprestok**, gainerakoak gonbidatuko ditugu gurekin euskaraz egin dezaten, nahiz eta guk euskaraz edo gaztelaniaz erantzun.
- Zarauzko Udalak **neurriak hartuko ditu hizkuntza-praktika** horiek posible izan daitezen eta praktika **horiei etorkizunean eutsi ahal izateko**.
- Zarauzko Udalak, **udal barruan ez ezik udalerrian ere**, ekimenaren sustatzaile gisa, herritarrak gonbidatuko ditu Euskaraldiko ekimenean parte har dezaten eta izena emateko bideak erraztuko ditu.
- Zarauzko Udalak, bat egiten du **ekimena Gipuzkoan elkarrekin, elkarlanean eta batera garatzearekin**, lurralde mailako politika bateratu bati begira, ahalik eta udal gehienetan, mankomunitateetan, Gipuzkoako Foru Aldundian eta Gipuzkoako Batzar Nagusietan.

## 8.- EH BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA

**– Mozal Legea kentzeko eta lege honetan oinarritutako zigorra jasan dezaketen bi zarauztarrei babesa eta elkartasuna adierazteko mozioa.**

2018O0010010 espedientea

Ondoren, EH BILDU udal taldeak aurkeztutako lehenbiziko proposamena irakurri dute. Honela dio:

**MOZAL LEGEA KENTZEKO ETA LEGE HONETAN OINARRITUTAKO ZIGORRA  
JASAN DEZAKETEN BI ZARAUZTARREI BABESA ETA ELKARTASUNA  
ADIERAZTEKO MOZIOA.**

Iragan maiatzaren 23tik 25era Turismoaren Mundu Erakundearen goi-bilera burutu zen Donostian. Goi bilera zen bitartean Donostiako Tabakalera hainbat ekitaldi egin ziren Turismoaren Mundu Erakundearen Kontseilu Exekutiboak antolatuta. Donostiakoa Erakundearen 108. bilkura izan zen eta 70 estatutatik etorritako 300 ordezkariak gora bertaratu ziren.

Halaber, *“Bizitza da handiena”* lelopean 63 eragilek babesa adierazitako beste egitarau bat ere aurrera eraman zen egun bertsuetan Donostian bertan. Eragileek eurek antolatutako egitaraua zuten, non bakoitzaren dinamikak plazaratu, eztabaidatu eta esperientziak partekatzeko baliatu eta, aldi berean, Turismoaren Mundu Erakundearen ezarritako hainbat politika, euren iritziz, okerrak direla azaldu nahi zuten. Egitaraua bera, eragileen aniztasunaren isla zen: turismo eredu honen

aurkako auzokideak, erraustegiaren aurkako mugimendua, mugimendu feminista, pentsiodunak, etxebizitza duinaren aldeko mugimendua...

Dinamika guztiak modu baketsuan egin ziren eta ez zen indarkeriarik erabili ezta halakorik sustatu ere.

Maiatzaren 24ean, ordea, herritar talde bat txilibitua joz joan zen Tabakalerara, bertan Mundu Erakundeko goi-bilera parte hartzen ari ziren kideak luntxa baitzuten. Tabakalera kanpoan zirenean ertzainak protestara joan zirenak identifikatzen hasi ziren. Tartean, ertzainei euskaraz egiteko eskatu zien pertsona bat hartu eta besteengandik bereizi zuten. Baten eta besteen bultzaden artean, hala ere, ertzainek bi herritar atxilo hartu eta komisariara eraman zituzten. Grabatuta dauden eta publikoak diren irudietan ikusten den moduan, ez zen indarkeriarik erabili protestan zirenen partetik eta ez zen horretarako asmorik. Hala ere, bi gazte zarauzarrak bortizki atxilotu eta eginbideak ireki zizkieten, Mozal legean oinarrituta.

Oraindik akusaziorik ez duten arren, horiek dira komisariatik ateratakoan adierazitakoak.

Martxoaren 30eko 4/2015 Herritarren Segurtasunerako Lege Organikoa, Mozal legea moduan ezagunagoa dena, Udal honek 2015eko abuztuko ohiko plenoan aho batez kentzeko eskatu duen legea da.

PPk lanaren arloan, hezkuntzan, gizarte zerbitzuetan, osasunean, etxebizitza eskubidearen arloan edota bestelako politika publikoetan herritarrek duten aurkakotasuna kalean adierazteko aukerarik gabe eta protesta egiteko eskubiderik gabe eta isilik utzi nahi izan zituen herritarrak lege hau bere gehiengo absolutuaz onartu zuenean.

Segurtasunaren aitzakiarekin, eskubide zibil eta politikoak murriztu zituen, herritarrak susmopean jarri, isunak handitu, poliziak autoritatearen jaun eta jabe izendatu eta euren erabakiak eztabaida ezin bihurtu zituen. Finean, ezberdin pentsatzen duenari euren kexak bideratzeko eskubiderik gabe uztea zen asmoa.

Kongresuaren eta Senatuaren aurrean elkarretaratzeak egiten zituzten herritarrei zigorrak ez jartzea exijitu zuen bere momentuan PSOEek eta baita gobernura iritsi orduko lege hau indargabetuko zuela hitz eman ere.

Ezinbestekoa da, beraz, lege hau bertan behera utzi eta, izaera errepresiboa izan beharrean, eskubide zibil eta politikoa defendatzeko izaera izango lukeen lege berri bat egitea, herritarren segurtasuna bermatzearekin batera, ez baitu honek aurrekoaren baldintzatzaile zertan izan. Lege berri bat, finean, indarra adierazpen askatasunean eta eskubideen gauzatzean jarrita, ez horien murriztean. Izan ere, duela hiru urte Udal honek esan moduan, Mozal legeak salbuespen egoerak betikotu eta oinarrizko eskubideak urratzen ditu.

Horregatik, Zarauzko Udalak honako MOZIOA onartu du:

1. Zarauzko Udalak Martxoaren 30eko 4/2015 Herritarren Segurtasunerako Lege Organikoa, Mozal legea moduan ezagunagoa dena, kentzeko eskatzen du berriz.

2. Lege honen ondorioz kaltetuak izan daitezken bi herritarrei, Mikel Zabaleta Fernandezi eta Josu Arruti Agirrerri, gure babes eta elkartasuna adierazten diegu. Halaber, lege honek sor liezazkieken ondorioetan laguntzeko prestutasuna adierazten dugu, aurretik auzia zein egoeratan den jakiteko emanda eta konponbide bat lortzeko beharrezko pausoak emanda.

3. Akordio honen berri emango diegu bi herritarrei, Gipuzkoako Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari, Gasteizko Legebiltzarrari, Arartekoari, eta Madrilgo Kongresuari eta Senatuari.

Aurrekoa irakurri eta gero, mozioa eztabaidatzeari ekin diote.

EAJ-PNV udal taldeko bozeramaile **Arana** jaunak etenaldi txiki bat eskatu du, taldeak bere botoaren zentzua aztertu ahal izateko.

Horren aurrean, **batzarburuak** bilkura eten egin du, iluntzeko zortziak eta hogeian. Handik bost minutura, zortziak eta hogeita bostean ekin diote berriro osoko bilkurari, eta proposamena bozkatu dute. Hona hemen emaitza:

Botoak alde:	8	(6 EH Bildu, 2 Irabazi-Zarautz)
Botoak aurka:	2	(2 PSE-EE)
Abstentzioak:	10	(10 EAJ-PNV)

Horrenbestez, adierazitako botoekin, Udalbatzarrak ERABAKI DU aurreko mozioa onartzea.

## 9.- EH BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA

### – Altsasu.

2018O0010011 espedientea

Era berean, EH BILDU udal taldeak aurkeztutako bigarren proposamena irakurri dute. Hona hemen testua:

### ALTSASU

2018ko ekainaren 1ean Entzutegi Nazionaleko Lehen Sailak 2018/17 zenbakidun Epaia eman zuen Altsasuko herrian 2016ko urriaren 15ean jazotako gertakariak ikertu eta epaitu zituen prozesu judizialean, eta auziperatuei erabaki judizialak frogatutzat jotzen dituen gertakarien zigor-kalifikazioari jarraikiz honako zigor hauek jarri dizkie:

Oihan Arnanz eta Iñaki Abad: 13 urteko espetxea  
Jokin Unamuno Goikoetxea eta Adur Ramirez de Alda: 12 urteko espetxea  
Jon Ander Cob, Julen Goikoetxea eta Aratz Urrizola: 9 urteko espetxea  
Ainara Urkijo: 2 urteko espetxea.

Aurreko guztia dela-eta, Zarauzko Udalak honakoa adierazi nahi du:

### MOZIOA

1.- Zarauzko Udala ez da Entzutegi Nazionalako Lehen Sailak Altsasuko udalerrian 2016ko urriaren 15ean jazotako gertakari triste eta deitoragarriak ikertu eta epaitu zituen prozesu judizialaren baitan emandako epaiaren iritzi berekoa. Gertakari hauek ez zuten inoiz gertatu behar izan, baina ezarritako zigorren izaera desproporzionala da. Desproporzio hori prozesu judizial osoan presente egon da. Gertakari delitu terrorista kalifikazioa eman eta Entzutegi Nazionalaren partez egindako ikerketa, epaiketa eta zigorraren ostean, Udal honek beti irmoki arbuiatu duena. Arbuio hau auziperatuetariko hiru laguni ezarritako espetxe prebentiboaren aurrean ere adierazi da, horretarako zio legalak betetzen ez direla iritzita. Honela zigorturiko pertsonak dauden bide judizial guztiak agortu arte espetxean ez sartzea eskatzen dugu.

2.-Zarauzko Udalak orain arte izandako jarrerari eusten dio, zeinaren arabera aipatu gertakariak Nafarroako Entzutegi Probintzialak ikertu, epaitu eta hala bazegokion, zigortu behar izango zituen eta ez Entzutegi Nazionalak. Azken horrek eskumena bereganatu zuen eta Auzitegi Gorenak berretsi zion gertakariak izaera terroristako ustezko delitutzat jo baitziren, baina kalifikazio hau azkenik baztertu zuen Epaiak.

3.- Zarauzko Udalak uste du presio politiko eta mediatikoak gertakarietako guztiz desproporzionalak diren zigorrak eragin dituela. Presio honek gertakari hauek izaera terroristako ustezko delitutzat jotzea eta neurritz gaineko gehiegizko egoera batera iristea eragin du; zigor maila hau ez da normalean ezartzen antzeko egoeren aurrean Estatuko beste toki batzuetan.

4.- Zarauzko Udalak bake eta elkarbizitzaren alde lan egiteko prestutasun sendoa adierazten du eta Altsasuko herritar guztiak bide horretan lanean segitzeko animatzen ditu, haiei kasuaren trataera mediatikoaren aurrean 2016ko urritik orain arte izaten ari diren jarrera zibikoa aitortuz.

5.- Zarauzko Udalak, kasu honetan JUSTIZIA eman dadin duen borondatean oinarriturik, herritar guztiei *Altsasuko Gurasoak* kolektiboak aurrerantzean antolatutako ekimenetan parte hartzera deitzen ditu herritarrak.

Eztabaida amaitutakoan proposamena bozketan jarrita, emaitza hau izan du:

Botoak alde:	18	(10 EAJ-PNV, 6 EH Bildu, 2 Irabazi Zarautz)
Botoak aurka:	2	(2 PSE-EE)
Abstentzioak:	—	

Beraz, adierazitako botoekin, Udalbatzarrak ERABAKI DU EH BILDU udal taldeak aurkeztutako mozioa onartzea.

## 10.- EH BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA

### – Aberastasun handien zerga kentzearen aurkako mozioa.

2018O0010012 espedientea

Azkenik, EH BILDU udal taldeak aurkeztutako hirugarren proposamena irakurri dute. Hauxe da testua:

#### **ABERASTASUN HANDIEN ZERGA KENTZEAREN AURKAKO MOZIOA**

Pasa den maiatzaren 9an izandako Gipuzkoako Batzar Nagusietako osoko bilkuran, EAJ-PSE koalizioak eta PPK Gipuzkoako aberatsenei zergak jaistea erabaki zuten. Hemendik aurrera, Gipuzkoako 38 aberatsenek, batez beste, 408.316 euro gutxiago ordainduko dute urtero eta guztira 15,5 milioi euro gutxiago jasoko ditu Gipuzkoako Foru Ogasunak, EAJ-PSE koalizioak murrizketa sozialak egiten jarraitzen duen bitartean.

Gipuzkoako herritarren gehiengoarentzat honakoa kontu eskandalagarria da. Gipuzkoako %1 aberatsenentzat, berriz, ospatzeko moduko erabakia izan da, aberatsenek, milioika euroko kontu korronteak dituztenek, badute zer ospatua. Izan ere Fortuna Handien gaineko Zerga bertan behera garatzeko erabakia hartu dute EAJ-PSE eta PPK, eta ondorioz, zerga sistema ezberdin bat indarrean sartuko da, askoz insolidario eta injustuagoa.

Datuak argiak dira: Zerga erreformaren memoria ekonomikoaren arabera, Foru gobernuak egin nahi duen aldaketarekin "zerga ezkutua" delakoa ("escudo fiscal") baliatuko luketen 875 zergadun aberatsenek batez beste 37.794 euro gutxiago ordainduko liokete Ogasunari. Guztira, 33 miloi gutxiago jasoko lirateke ezkutuaren eraginez, diru hori ezinbestekoa denean herritarren ongizatea bermatzeko.

Baina memoria ekonomikoan are eta larriagoa den beste datu bat ere ematen da: zehazki, 12,8 miloi euro baino aberastasun handiagoa duten 38 pertsonetako bakoitzak, batez beste, 408.316 euro gutxiago ordainduko lioke urtero Ogasunari. Hau da, EAJ-PSE koalizioak Gipuzkoako 38 aberatsenei urtero 15 miloi ´erdi oparituko dizkie.

Datuak argiak dira. Ez dira EH Bilduk asmatutako datuak, ezta sindikatu edo eragile sozialen datuak ere. Hauek guztiak Foru Aldundiak emandako datu ofizialak dira.

#### **MOZIOA**

1. Zarauzko Udalak ez du zerga erreforma hau babesten eta ondorioz, ez du bat egiten Gipuzkoako aberatsenei zergak jaisteko erabakiarekin.
2. Zarauzko Udalak Fortuna Handien gaineko zerga bere horretan mantentzea eskatzen du, zerga hau (beste askorekin batera) aberastasunaren banaketa solidario eta justua egiteko tresna egokia dela pentsatzen baitu.
3. Zarauzko Udalak ez du babesten aberatsen mesedetan ezarri den "zerga ezkutua" edo "escudo fiscal" delakoa.

4. Zarauzko Udalak Mozio hau Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Gipuzkoako Batzar Nagusietako mahaiko lehendakariari helaraziko dio.

Udal taldeek proposamenaren inguruko iritzia eman dute eta, ondoren, mozioa bozkatzeari ekin diote. Hona hemen emaitza:

Botoak alde:	8	(6 EH Bildu, 2 Irabazi-Zarautz)
Botoak aurka:	12	(10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Abstentzioak:	—	

Horrenbestez, Udalbatzarrak ERABAKI DU, botoen gehiengoarekin, transkribatutako mozioa atzera botatzea.

## 11.- ESKARI-GALDERAK

Gai-zerrendako puntu honetan gai hauek izan dituzte hizpide:

- Ustezko eraso lesbofobikoa.
- Kartelak, pintadak, pankartak... bizikidetzan laguntzen ote?
- Astiko kantina: hartuneen harira, aurreko udal gobernuak agindutakoa kontzesiodunari.

Eta aztertzeko besterik ezean, batzarburu jaunak osoko bilkurari amaiera eman dio, gaueko hamarretan; eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.